

JUAN OROBIOGOITIA BHI HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA PROIEKTUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUAREN HELBURUAK HAUEK DIRA:

- Euskara izan dadila ikastetxeko hezkuntza komunitatea osatzen dugunon arteko (ikasle – irakasle – guraso – langile ez irakasle, ...) berezko hizkuntza, eskola hizkuntza eta komunikazio hizkuntza; bai ohiko ikaste-irakaste jardunean, zein jardun horretatik kanpo.
- Euskararen berreskurapen prozesuan indarra egin eta erabilera normalizatua bideratu.
- Ikaslea bere ikasketak burututakoan euskaldun osoa izatea eta ikasten dituen hizkuntzak eta kulturak barneratuta izatea.

EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEKO IKASTURTE HONETAN KONPROMISO HAU IZATEA PROPOSATZEN DA:

- Erdaraz egiten den egoeren aurrean, **irakasle guztiak jokabide bateratuak** izatea.

Egoera	Irakasleon jokabidea
Ikasgela barruan ikasle bat irakasleari gatzelaniaz zuzentzen zaio.	Lehenengoan, bigarrenetan eta, agian, hirugarrenean, lasaitasun handiz eta era onean, esandakoa euskaraz errepikatzeko eskatu, klasean baitago eta gelako hizkuntza euskara dela gogoratu. Jaramonik ez zaio egingo euskaraz zuzendu arte. Laugarrenetik aurrera diziiplina arazoa izango da (notan eragina izango luke).
Ikasgelatik kanpo ikasle bat irakasleari gatzelaniaz zuzentzen zaio.	Lasaitasun handiz eta era onean, euskaraz zuzentzeko eskatu, irakaslearekin harremanak nonahi eta beti euskaraz izan behar direla gogoratu. Solasaldia etenda gelditzen da euskaraz izan arte.
Ikasleen artean, ikasgela barruan.	Berriketan egoteko momentu egokia bada edo taldean lanean ari badira, lasaitasun handiz eta era onean, euskaraz jarduteko eskatu, gure harremanak ikastetxean beti euskaraz izan behar direla gogoratu. Solasaldia etenarazten da euskaraz izan arte.



GOGORATU. GU GARA IKASLEEN EREDU;!